

BALIABIDE GILTZARRIAK

Lehen esan bezala, kanpoko teknologia enpresa batekin kontaktatuko dugu. Fidagarria izatea nahi dugu, arazorik ez izateko, beraz, hainbat enpresa desberdinekin kontaktatu behar dugu hasieran, eta enpresa horien informazioa jaso. Informazio hori behatu ondoren, guri hoberena iruditzen zaiguna aukeratuko dugu, eta gure produktua hoberen saldu enpresa.

Enpresa aukeratzekoan, haiek aholkuak jarraituko ditugu, beraiek espezialistak direlako, eta beraiek gidatu ahal dugutelako.

Baita ere, hasiera batean web orri bat jarriko dugu, produktuak saltzeko. Hasteko uste dugu hau hoberena dela, hasieran denda bat jartzea oso arriskutsua delako, produktuak ez baldin badu arrakasta handirik izaten. Beraz, lehenengo web orria jarri eta arrakasta izaten badu, aurreantzean denda fisikoa ezarriko da.

Gutxi gora behera 50 langile izango dira. Langileak espezializatuak egon behar dira, lana ondo egiteko. Langile batzuk informatikan espezializatuak izan beharko dira, horrela web gunean arazoren bat egonda errazago konpon ditzazkegu, erosleak ikusi ditzatela arazo bat gertatzen baldin bada, ahal dugun azkarrena konpondu ahalko dugula. Langileak web gunearen hobekuntzaz arduratuko dira eta aktualizazio guztiak beraien kargu egongo dira. Hau da, hasieran aipatu dugun bezala, hasteko aurikular modelo gutxi egongo dira, baino pixkanaka, ikusten dugunengan salmenta gora egiten duela, modelo gehiago gehituko dira, beraz horretan egingo dute lana haiek.

Beste langileak produktuak egiten egongo dira eta horiek guk bidalitako diseinua egin beharko dute, honetarako ingenieritza batean espezializatuak egon beharko dira, espezifikoki diseinu industrialean, guk buruan ditugun diseinuak egiteko eta ondo egiteko. Beste langile batzuk marketinean espezializatuak izan beharko dira eta horrela publizitatea egiteko garaian jende gehiagorengana iritsiko gara eta gure produktua erakargarriago egitea lortuko dugu. Izan ere, gaur egun publizitatea oso garrantzitsua da, gehienbat sare-sozialetatik, beraz espezializatu on bat beharko da honetarako.

Produktuaren diseinua guk egingo dugu baina produktua beste toki batean garatuko da. Lantegi horretan hainbat langile egongo dira, hasteko, produktua garatuko den gunean ingenieroak egongo dira eta bertan produktuaren garapena egingo da, guk diseinua azalduko diegu, eta beraiek egingo dituzte, hainbat aldaketa egiten. Beste aldetik informatikoak egongo dira eta han aurikularrak konfiguratuko dituzte, hau da, musika deskargatzeko eta botoiak konfiguratuzeko egongo dira. Baita ere, beraien garantia bermatzeko, izan ere, aurikularrak ez dira batere merkeak, beraz ordaintutakoa ondo egoteko.

Azkenik ere, berezoko batek bere aurikularrak gaizki daude ala gaizki funtzionatzen dutela esanez, norbait egongo beharko luke arazo hori konpondu ahal izateko, ala

aurikular berri batzuk emateko. Baita ere jakin beharko luke arazo hori ez dela bezeroak gaizki erabiltzeagatik izan direla.

Beste alde batetik, administrazioa ikasi duen pertsona bat era egongo da, gure kontabilitatea eraman dezan eta dirua ondo kudeatzeko beharrezkoa ikusten dugu. Horren aparte ere, salmentak eramateko, jakiteko ea dirua irabazten ari garen ala ez. Azkenean sortutako produktu honekin dirua irabazi nahi dugu, eta diru asko inbertituko dugunez, ba gauza horiek kontrolatuta eramateko.

Abogatu bat ere kontratatuko dugu, enpresaren gauza legalak aurrera eramateko eta dena legangi dagoela guri jakinarazteko. Ez ditugu nahi inongo arazorik, beraz ideia hoberena da.

Azkenik, proiektuaren hasieran, etxetik hasiko gara lanean, baino dirua lortzen hasten garen momentuan bulego txiki bat alokatuko dugu, lanean aritzeko. Bulegoa seguraski Lasarten egongo da, gure etxetik gertu egoteko eta prezio on bat izateko.